

EUSKAL ADITZA NOIZKOA OTE?

JORGE OTEIZA'RI ESKEÑIA
ADITZA ATA GAIA ATSEGIN ZAIZKIOLAKO

Bearrezkoa da galdera bat egitea: noizkoa ote gure euskal aditza? Gogotik esango nuke garai askotako zatiak ditula; oñarri nagusi batzuek oso antziñakoak, besteak berriz berriagoak.

Izkuntzen sorrera nolakoa den jakiteko, zenbat gizon argi ta jakintsuak, euskara iturri berexia ta guztiz arrigarri bezala artu dute, batez ere euskal aditza. BEREZ berri asko ematen ditu ta oso bestelakoa da.

EUSKAL ADITZAREN NORTASUNA

Gustave Guillaume izkuntzen mamiaren irakasle ospetsuak, Sorbona Ikastetxe Nagusian, gai oneri buruz, argitasun berexia eskuratu zigun. Izkuntzak ikertzeko, gogoerakunde mailan erabiltzen ditu. Nola dauden izkuntzak osatuak jakiteko, euskeraren egiturak argitasun aundia ematen digula erakasten du (G. Guillaume, *Leçons de linguistique* 1948-1949, Klincksieck, Paris 1971, 72 or, 108-109 or.).

Berak dionez, izkuntza oso osorik buruan dago nunbait eta itz egitean zatiak dabilkigu. Esaldiak izkuntzaren zatiak dire. Izkuntzak, or, nunbait daude eratuak; goitik bera buruko goi malatik mingañaraino dijoan bide ortan. Itz egiterakoan bide ortan sortzen dira nunbait. Iker zubi bezala lau izkuntz talde erabiltzen ditu: Txino, Semita, Indoeuropeotarra ta Euskara.

Oso goyen, adimenean ezartzen ditu aztarnak; iragarki izkuntzak edo Txino'tar sendien izkuntzak; itz bakotzak ezaugarri edo marrazki berexia dauka.

Bide erdian, or nunbait ezarriak daude Semita kutxuko izkuntzen aztarnak. bi unetxo bear osatzeko. Lenengoan erroak azaltzen dire ta urrengoan itz osoak.

Bide erdian, baño bat batean sortzen da Indio-europeo'tar sendien izkuntza. Itzen itxura ta mamia atxikiak azaltzen dire.

Euskararekin beste egokera daukagu. Aditza esaldiaren ezaugarria da. Esaldiaren laburpena salatzen du. Mingañaren ondoan sortua dago. Orrexek aitortzen du euskararen antzinaldia. NOR-NORI-NORK egiturak esaeraren gaiak azaltzen ditu. Euskal aditza esaldiaren ondoan gelditzen da, onen ixpillu izango ba'litz bezala. Euskal aditza ez da goyen buruan sortua, mingain ondoan baizik. Orregaitik aditzaren jokabidea ta sorrera aspaldikoak direla esan dezakegu; aintziñetako garaikoa, zarrenetakoa.

ORAIN GARAIA

Orain delako garaia, euskal aditzaren ardatza ta gjarra dugu, gaiñera izkuntzaren sorreraren ezaugarri garbia. Burua lanean asten dela izkuntza osatzeko

bizpauru urratz ematen ditu oso azkar. Lenengoa, naiaren ezaugarria, zeatz eta meatz billa gabiltzan gaia. Gero gai orren jokabidea edo ekintza dator. Ondotik, nori dagokion gai ori. Azkenean eraikillea aurkezten da ekintza oneri amaya emateko. Jarri dezagun eredu bat. Illunpetatik argira datorkigun lenengo izpia, gaiaren mamia da, "ogia" edo "ardoa" edo beste zerbait. Ondotik ekintzaren jokaera azaltzen da, "ERAMAN" edo "EKARRI" edo abar. Gero ekintza adierazten diogunari dator; au da Josetxo edo Mirentxu edo abar. Ekintzaren bulzagillea azkena sortzen, Ni, Zu edo besten bat. Orrekin aditza dabil oraingo garaian.

Bide ortik dijoa euskal aditza. Iru abe nagusien gañean eraikia dago, NOR (edo ZER) -NORI-NORK errenkak. Ekintza adierazten dun erroa NOR eta NORI tarte ortan dijoa.

NOR (ZER) errenkan ekintzaren mamiaren azpilla azaltzen da, aditza iragan-korrak diona, baita aditz aldakorrak esaten duna, nortsuaren agiria.

Gero aditzaren erroa dator, naiz bildua izan (ba ditugu aditza bildu zar batzuek, adibidez EKARRI, ERAMAN) edo laguntzallea.

Erroaren ondotik artzeduna datorkigu, NORI errenka.

Azkena agertzen eragillea edo NORK errenka. Orduan aditz osoa auxe izango da: DAKARKIOT, DARAMAIOT edo DIOT. Eragillea agertzen delarik, orain garaia ortxen dabil lanean, euskal aditzan garbi ikusten duguna. Esaldi ondoan sortzen da eta buruak dion bezala. Izkuntzaren asieraren lenengo urratsak ortxen ditugula ezin ukatu, gutxinaz gizona aditza izkuntzan erabiltzen asten dalarik. Aspaldi ta aspaldi garaiko urratsak ditugu emanak or.

Orain garai onek ba du txinparta euskal aditzan eta zer esanai aundia.

LEN GARAIA: NORK IGES

Len garaira gatozela agerpen arrigarri bat gertatzen da. Elkarizketako lagunak mintzo dirala beren artean ez dago buruausterik, bakotzak bere tokia gordetzen du errenkan: NINDUZUN, ZINDUDAN. Erroaren lokarriak aldatzen dire ta aditz osoa -N- batekin amaitzen da; oraingotasuna galdu dunaren ezaugarria, beti gogoan artu bearra.

Bainan NOR laguna irugarren mailakoa denean, NORK bere errenka utzita, NOR errenkara dijoa, bertako errenkaren ezaugarriak artuta: NION, ZENION, ZION. NOR errenkan irugarren tokia artzen dun orrek ez dagolako lekuko, ez garaian, ezta ere elkarizketan, gure izkuntzak, euskarak ez dio ezaugarri bere-xirik ematen. Baten utsunea betetzeko, NOR errenkako ezaugarria agertzen da. Alde dagon laguna, euskaldunaren izadian eta izkuntzan, gaurkotasuna galtzen duna, izan ez ba'litz bezala artua dago, beste baten izenarekin azaldu bear. NORK errenka onen aldaketak, len garaian, zer esanai aundia dauka. Izkuntzaren aldetik aldaketa aundi bat dago ta ondo emana. Aldaketa au erri osoaren buruan gertatua da, ondo asmatua, egiztaratua ta ontzaz emana. Ez da aste bateko lana, garai luze batena baizik. Milaka urte igaro dire ori lortu arte ta ondo korapillatua denak ontzaz artu arte.

Orrexek esan nai digu, len garai ori arkitzeak eta aditzan garbi ondo azaltzeak, benetan izkuntza zar batentzat beste berri arrigarri baten ezaugarri dela. Asti luze batean gizarte arek, orain garaiazen giroan irauan dula, besterik ezagutu gabe. Egunak igaroko zituen orain luze bat bezala.

Gaur esan dezakegu, len garai ori ondo lortzea izan dela, gure gizartearen urratsik aundienetako bat. UNION STATION (WASHINGTON-USA) delako iri

nagusiaren bultzit gertokian etxearen gainean dago eraikia edergallu bat gizar-
tearen asmatze aundienari eskeinia; sua ikertzea dela dio. Ez ote da len garaia
ondo orraztua arkitzea asmakizunetan aundiena? Oroimena eskuratzeko bi-
dea eskeintzen dio gizonari. Ori dena esaten du euskal aditzak.

GEROKO GARAIA

Berez, gero garaia, gureganatutako ikasitiki jaiotzen da.

Gero garaiak azpil bat bear du sortzeko, nai ta naiez len garaia izaki. Orrela-
xe egiten du euskarak; NIOKE, ZENIOKE, LIOKE. NOR-NORI-NORK errenkak
len garaikoak dire, iges gertaera aitortzen dutenak edo deritzaiotenak. Ez dau-
ka errenka edo lerro berexirik. Len garaia -KE atxikia eransten dio, baita NOR
erreak -L izkia sartzen du, -N galtzen.

-KE atxiki ori berdin berdiña dauka Korea'tar izkuntza zarrak geroko garaia
osatzeko.

Esan bearra ere Xiberotarrez -KE ori oraingo garaia eransten diotela, DU-
KE adibidez. Euskalzaindiak ontzat artu du ta zabaldu naiko luke.

Bainan geroko garaia berezko eraketa, len garaia errenketan oñarri-
tua dijoakio.

Oso aditz ezberdiñen erro gutxi sartzen dire NOR-NORI-NORK errenketan,
gauza bearrezkoenak adierazten dituztenak, larritasun aundienetatik ateratze-
ko: ETORRI, JOAN, ERAMAN, YAKIN, IKUSI eta ez askozegaiago; baita ere
aditz laguntzalearenak.

ADITZ LAGUNTZALLEA

Aditz laguntzalea, bakarra bezala agertzen zaigu gaur. Berez erro ezberdin
asko ditu: IZAN, UKAN, EZAN, EDUN, eta abar. Gai ortaz ikus: "La Represen-
tación del Tiempo en el Verbo Vasco, José María de Lachaga, Bilbao 1994,
Zabaltzen, 145 or.". Aditz geyenekin, aditz laguntzalea erabiltzen dugu. Aditz
itz guztieri atseski batzuek erasten zaizkie ta laguntzallearen joskera arturik lan-
nean dabiliz: adibidez EROSI-EROSTEN-EROSIKO diot. Aditz geyenekin la-
guntzalleak jartzen du erabidea. Ekintzaren mamia aditz bakotzak dakar, ga-
raia nortzuar lotua berriz laguntzalleak eskuraten du. Laguntzail orrek erro
asko dauzka aditz ezberdiñenak. Asieran aditz oyek banaka bilduak bezala
erabilliko zituen izkuntzak. Gero pixkanaka, puxka oyekin aditz laguntzallearen
egitura osoa ta bakarra sortu du.

Aldaketa ori ez da berez edo errex egin, milaka urten lana izan da.

Laguntzalleari esker garaia ere zabalatzen joan dire eta aditzaren jokabi-
dea aberasten. Aditza bilduak berez esango ez lituzkenak, laguntzalleari esker
egiten ditu: ETORRI NINTZAKE, ETORRI IZANGO NINTZAN, ERAMAN NIN-
DEKEAN, ERAMANGO IZAN NUEN, eta abar. Aditz multzotik batera iristea gi-
zaldi askoren lana izan da.

GARAI IRAGIKORRAK

Orain arte ikusi dugu aditzak nola ibilli ditun egitazko osaketak. Emendik
aurrera iragikor erak aztertu bearrak ditugu. Bi erakoak daude: almenezkoak
(DEZAKET-NAITEKE) eta gura era adierazten dutenak (DEZADAN-NADIN).

Almenezko joskerak bakarrik lana egiteko indarrak ditula aitortzen du, bai-

nan orrekin ez ditula era bat egin esaten digu edo egin gabe gelditu direla. Erroa -EZA- du ta -KE atseskiarekin geroari begira txintxilik gelditzen da.

Gura erako garaiak naia giroan mintzo dire, asmo on batean ezarriak, egi-tazko osaketatik urruti.

Bi aditz oyetatik edo bi garai oyetatik, zein da zarrena? Galdera ori egin de-zakegu. Nere iritsiz biyetatik errexena asmatzen, ura da aurrena. Almeneko garaiak, oraintxe bertan ditun indarrak agertzen alegintzen da. Egitan ari da la-nean orain, bainan indarrak bakarrik ditula esateko. Bi talde oyetatik errexena asmatzen almenezko garaiak dire. Gura adierazten duten garaiak ekintza mu-rriztuagoa azaltzen dute, zailagoa atxikitzen, bearrezkoak gertatzen ez diren osaketak adierazteko egiñak daude. Garai era onek, almenezko -KE galtzen du ta bukaeran -N artzen. Orrekin osatua gelditzen da.

Aditz denak bi era auek, almenezkoa ata gura girokoa, aditz laguntzalleatik artzen dituzte, osatuenak eta garbienak direlako. Aditz bilduak ez dituzte ain garbi osatuak, idurizpeneko garai abek.

BALDINTZAKO JOKABIDEAK

Euskarak bizi bear izan du beste erri aurreratuekin, jakintza aundikoak, iz-kuntza landuekin zeudenak. Abek indarra zuten, jakintza ta ondo ikasiak ziren. Ori esatean latin izkuntza dugu buruan, baita prantzesa ta española. Izlariak, araulariak edo elizgizonak, askok eta askok erabiltzen zituzten bi izkuntzak eta maiz erderatik euskararat itzuli bear esaldi arrotzak. Lan ortan bortxatu dituzte aditzaren jokabide batzuek. Ori bera nola esaten du euskarak bere aldetik bi-llatzen alegindu gabe asi dire itzez itz izkuntza batetik bestera itzultzen.

Gertaera orren ezaugarri, ortxen ditugu ostopoak baldintzako jokabide ba-tzuekin. Adibidez ERAMATEN BA'NU. Gai oneri buruz ikus: La Representación del Tiempo en el Verbo Vasco, José María de Lachaga, Bilbao 1994, Zabal-tzen, 47 or.". Erdal izkuntza euskara bortxatuz ibilli da.

Itzultzalea nun dagon ezarria jakiteak asko esan nai du. "SI VENIAM", nola itzuli edo nola esaten dun ori bera euskarak, bi gauza ezberdiñak ditekela, esango genuke.

Erdal kutxoa ez da euskal sena. "ETOR BA'NADI" ote erantzuna? Orra or korapillo gogorak naikoa estutu dutenak gure euskara, latin izkuntzaren garai-tik asita.

Arlo ortan gaude sartuak gaur oraindik.

IBILLIALDI LUZEA

Gaur erabiltzen dugun euskarak ibillialdi luzea egin du, millaka urte askore-na. Gordetzen ditu zati batzuek oso antziñakoak, besteak berriagoak.

Orain lan bat gelditzen da egiteko: gizaldietan gizonak utzi ditun aztarnetan aditzaren argibideak arkitu bear ditugu. Orrela ta orrela bakarrik jakingo dugu, gutxi gora bera, ze garaikoa den euskal aditzaren egituraren zati bakoitxa. Bi-de ortik lan asko dago egiteko oraindik.

Euskal aditza aintzina garaiako esalea dugu.

LATXAGA